

Prentsa oharra

Nota de prensa



Donostiak 188.000 biztanletik gora izaten jarraitzen du

Atzerritarrek biztanleriaren %8,5 dira, iaz baino 295 gehiago

2020an 315 hildako gehiago egon ziren 2019an baino, antza COVID-19aren osasun-larrialdiaren ondorioz

188.102 biztanlerekin amaitu zuen Donostiak 2020a, hau da, iaz baino %0,07 gutxiago (188.243), eta beraz, 188.000 biztanletik gora izaten jarraitzen du. Gogoan izan, 2019an lehen aldiz gainditu zuela biztanle kopuru hori.

2020ko abenduaren 31ko erroldaren datuek adierazten dute biztanle-kopurua bere horretan mantendu dela, baita batez besteko adina ere, hau da, 46 urte.

Erdialdea eta Gros auzoak dira batez besteko adin handiena duten auzoak (49 urte), eta aldiz, Aiete, Ibaeta, Loiola eta Miramon-Zorroaga dira batez besteko adin txikiena dutenak (43 urte).

Era berean, biztanleen %52,75 emakumezkoa da, eta gehiago bizi dira. Eta zehatzago, 65 urtetik gorako biztanleei erreparatzen badiegu, %59,4 emakumeak dira. Eta 80 urtetik gorako biztanleen %69 emakumeak dira.

Auzoak

Hiriko auzoen artean ez dago aldaketarik biztanle gehien eta gutxien dituztenen artean. Hortaz, Amara Berri da biztanle gehien dituen auzoa, 30.392 biztanlerekin (biztanleen %16,2). Jarraian Erdialdea (22.102) eta Altza (20.219) daude.

Bestalde, Zubieta da biztanle gutxien dituen auzoa, 271 (%0,14). Gainera, Loiola da 2020an gehien hazi den auzoa, %5,1. Eta arrazoia da, Txominenearen garapena. Txomineneako biztanleria %25,4 hazi da urtebetean.

Atzerritarrek

Atzerritar kopurua %1,8 hazi da Donostian 2020an. Guztira, 131 herrialdeetatik etorritako 16.009 biztanle daude, hau da, iaz baino 295 gehiago. Hortaz, atzerritarrek hiriko biztanleen %8,5 dira (2019an %8,3 ziren).

Hondurasek jarraitzen du atzerritar kopuru handiena izaten (2.196 biztanle). Jarraian Nikaragua (1.938) eta Moroko (1.124) daude. Hiru herrialde horietako biztanleak dira hiriarri atzerritar gehien ematen dizkietenak. Eta Italiatik, Frantziatik eta Kolonbiatik etorritakoak dira gehien hazi direnak.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Bestalde, espainiarren kopurua 895 gutxitu da (2019an 165.540 izatetik, 2020an 164.645 izatera pasa dira). Hortaz, ondorioztatu daiteke hiriak biztanleen kopurua mantendu duela atzerritarren hazkundeari esker.

Heriotzak eta jaiotzak

2020an 2.182 pertsona hil ziren Donostian, hau da, iaz baino 315 gehiago. Eta hazkunde honek lotura izan lezake COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ondorioekin.

Aldiz, 1.205 pertsona jaiotzen ziren, hau da, iaz baino 14 gutxiago. Beraz jaiotako pertsonak baino 977 pertsona gehiago hil ziren, hau da, azken urteetan baino askoz gehiago (2019an aldea 648koa izan zen).

Jaiotze-tasa eta zahartze-indizea

Jaiotze-tasak behera jarraitzen du, eta 6,42koa da (2019an 6,50koa izan zen). Beraz, datuak erregistratu egiten direnetik izandako tasarik baxuena da. Loiolak izan zuen tasarik altuena (9,47), eta aldiz Zubietak izan zuen baxuena (0).

Zahartze-indizeari dagokionez, gora jarraitzen du eta 191,8koa da, hau da, iaz baino 5 puntu gehiago. Ondorioz, hirian 65 urtetik gorako 1,91 pertsona daude 15 urteko pertsona bakoitzeko. Erdialdea ta eta Gros dira zahartze-indize handiena dutenak, 65 urtetik gorako 2,97 eta 2,90 pertsona daude 15 urteko pertsona bakoitzeko; eta Aiete eta Miramon-Zorroaga dira auzo gazteenak, 65 urtetik gorako 1,1 eta 1,2 pertsonekin 15 urteko pertsona bakoitzeko.

Ehunekoei erreparatuta, donostiarren %24,59k 65 urte baino gehiago dute, %7,73 80 urte baino gehiago, eta 102 pertsonak 100 urte baino gehiago dituzte. Azken datu honek behera egin du lehendabiziko aldiz azken urteetan.

Familia motak

Donostian 78.827 familia bizi dira. Batez beste, etxebizitza bakoitzean 2,39 pertsona bizi dira, eta pertsona bakarrez osatutako familien kopuruak gora jarraitzen du, eta 2019an 24.398 izatetik, 2020an 24.890 izatera pasa da, eta familia guztien %31,5 dira. Pertsona bakarreko familien %47,3k 65 urte baino gehiago dute (11.788), eta horietatik %76 emakumeak dira.

Era berean, hirian bi pertsonaz osatutako 23.979 familia daude, iaz baino %0,5 gehiago, eta familia guztien %30,4 dira.